



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko apirilaren 28a

47. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

—Foru Lege proposamena, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzekoa. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (2. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere gordailuen zati bat sozialki arduratsua den moduan inberti dezan Fiare Banka Etikoaren produktuetan. Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Batzordeak onetsia (4. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

—Galdera, emakumeari laguntzeko Tuterako eta Iruñeko zentroi buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).

—Galdera, Santo Domingoko zahar-etxeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).

—Galdera, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak Adingabearen Nafarroako Kontseilua sortze aldera egin dituen jarduketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).

—Galdera, “Mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeko eta laguntzeko sistema” izeneko kontusailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **Foru Lege proposamena, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzekoa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko apirilaren 26an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du, eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidatzea eskatu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. eta 157. artikuluetan ezarritakoarekin bat, eta Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

### **ERABAKIA:**

**1.** Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzea.

**2.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

**3.** Aipaturiko proposamena irakurketa bakarreko prozeduraz izapidatzea.

**4.** Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkura egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2010eko apirilaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## **Foru Lege proposamena, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzekoa**

### **ZIOEN AZALPENA**

Datuak esanguratsuak dira, eta zeharo argigarriak. 2007an, zazpiehun emakume nafarrek borondatez eten zuten beren haurdunaldia, eta guzti-guztiek gure erkidegotik kanpo egin behar izan zuten hori. Nafarroan gertatzen den egoera Espainiako Estatuaren osotasunarekin alderatuta atipikoa da, Nafarroako Gobernuak bere moralala inposatzen baitu emakumeek legez daukaten eskubidearen ginetik, eta emakumeak behartzen ditu beste autonomia erkidego batzuetara joatera, hala nola Euskadira, Madrilerara edo Aragoira, zertarako eta Nafarroan ere legez ziurtatuta dagoen osasun-prestazio bat izateko.

Paradoxa da ezen, inposaturiko zama moralala gorabehera, Foru Administrazioa dela zerbitzu hori ordaintzen diona hala eskatzen duenari. Alegia, ordaintzen duenaren helburua da Nafarroan indarreko legediaren babesean egin beharko litzatekeena beste erkidego batzuetan egiteko. Eta hori ageriko hipokrisia da.

Egoera horren aurrean, eta emakumeek Espainiako gainerako emakumeen baldintza beretan duten eskubidea defendatzeko, beharrezkoa da legedi argi eta zehatza taxutzea, interpretazioak egiten ibiltzea galaraziko duena eta osasun-prestazio horiek gure erkidegoan egiazki ematen direla ziurtatuko duena, moralarekin loturiko inolako zamak eragotz ez dezan legearen egiazko bete-tzea.

Azken batean, kontua da, adibide argigarri batzuk ipintzearen, Corteseko herritar diren emakumeek mugakide den Mallén herrikoen eskubide bera izatea, edo San Adriango herritar diren emakumeek Calahorrakoen eskubide bera izatea, edo Altsasuko herritar direnek Aguraingokoen eskubide bera izatea, edo Berakoek Iruñekoena.

**Artikulu bakarra.**

Aldatu egin da azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legearen 5.14 artikulua. Honela geldituko da:

“Gaixotasun fisiko nahiz psikiko guztien osasun-estaldura orokorra edukitzeko eskubidea, legeek ezarritakoaren barruan. Emakumezkoak diren herritarrek, eskubideen subjektu gisa, aitortuak dituzte, Nafarroako osasun publikoaren barruan eta itunpeko osasunaren barruan, besteak beste, haurdunaldiaren borondatezko etetearen osasun-prestazioa, betiere legez aurreikusitako baldintzetan.

Osasun-arloko agintariek bermatuko dute zerbitzu hori ematea zerbitzu-sare publikoan eta Nafarroaren osasun-eskualdearen barrenean, berekiak nahiz kanpoan kontratatatuak diren lantalde mediko eta osasuneko bidez, horrela osasun-prestazio hori bermatzeko.

Foru Komunitateko Osasun Administrazioak prestazio osagarriak ezarri ahalko ditu, aurretik

programazio berekia eta aurrekontu-zuzkidura berezia izanda gauzatuko direnak, eta helburu gisa izanen dute arrisku bereziko faktoredun gizar-te-taldeak babestea, lan-osasuna bereziki kontuan hartuz”

**Xedapen gehigarria.**

Foru lege honek indarra hartu eta hilabeteko epean, abian jarriko dira foru lege hau erabat aplikatua izateko beharrezkoak diren bitarteko eta antolabide guztiak.

**Xedapen indargabetzailea.**

Foru lege honen aurka doazen lege- nahiz erregelamendu-xedapen guztiak indarrrik gabe gelditzen dira.

**Azken xedapena.**

Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den unean bertan.

---

**E saila:**

**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere gordailuen zati bat sozialki arduratsua den moduan inberti dezan Fiare Banka Etikoaren produktuetan.**

### *FAMILIA, GAZTERIA, KIROL ETA GIZARTE GAIETAKO BATZORDEAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Batzordeak, 2010eko apirilaren 21ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere gordailuen zati bat sozialki arduratsua den moduan inberti dezan Fiare Banka Etikoaren produktuetan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko apirilaren 22an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

## **Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da bere gordailuen zati bat sozialki arduratsua den moduan inberti dezan Fiare Banka Etikoaren produktuetan**

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du bere gordailuen zati baten inbertsio sozialki arduratsua egin dezan Fiare banka etikoaren produktuetako edozeinetan.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio gizarte-kapitaleko ekarpen bat egin diezaion Fiare-ri, erakunde publiko gisa, 1.800 euroko gutxieneko parte-hartzearekin.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du kontusail bat ezar dezan 2011 eta 2012ko aurrekontuetan, urtean 35.000 euro inguruko esleipena izanen duena, banka etikoaren egitura Nafarroan irmotze aldera. Esleipen hori erabiliko litzateke pertsona bat kontratatu eta bulego bat alokatzeko.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hurrengo aurrekontuetan kontusail bat eslei dezan banka etikoaren jendarteratzerako eta horri buruzko sentsibilizaziorako, enpresen erantzukizun soziala bultzatzeko bere programan adierazten den bezala.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Gizarte Bazterkeriaren Aurkako II. Planaren barruan azterlan bat egin dezan gizarte-bazterketako egoeran dauden pertsonen, bai eta gizarteratze-zentroek eta zentro horien erabiltzaile diren pertsonen ere, dituzten finantzaketa-beharrizanei buruz, era horretan tresna finantzario berriak pertsona horien beharrizanei egokitzeko, aurrera eramaten ari diren gizarteratze-prozesuentzako albo-laguntza gisa.

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, emakumeari laguntzeko Tuterako eta Iruñeko zentroi buruzkoa.****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du emakumeari laguntzeko Tuterako eta Iruñeko zentroi buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko urriaren 16ko 103. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak emakumeei laguntzeko zentroi buruzko galdera egin du (PES 280/09). Hona hemen Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak ez ditu finantzatzen emakumeei laguntzeko Lizarrako eta Tuterako zentroak. Izan ere, baliabide horiek udalen eskumenekoak dira, eta ez daude oinarrizko gizarte-zerbitzuen lau programetako bakar batean ere; gainera, ematen dituzten zerbitzuak ez daude sartuta gizarte zerbitzuen zorroan, ez baitaude zorro horretako zerbitzuen hartzaile diren inongo taldetan (mendekota-

sunak duten edo izateko arriskuan diren pertsonak –adineko pertsonak, ezgaitasuna duten pertsonak eta eritasun mentalak dituztenak–, gizartean bazterturik edo hala gertatzeko arriskuan dauden pertsonak, babesgabeziako edo gatazka sozialeko egoeran dauden adingabeak eta genero indarkeriaren biktimak).

Jabetzen gara, bai, zentro horietan aurreko egoeretakoren batean egon daitezkeen emakumeak ere hartzen dituztela, baina, horretarako, gizarte zerbitzuen zentroek –zentrook pixkanaka ezarriko direla xedatzen dute Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legeak, gizarte zerbitzuen zorroak eta Gizarte Zerbitzuei buruzko Plan Estrategikoak– kolektibo horiei laguntza emateko beharrezkoak diren taldeak izanen dituzte, bereziki genero indarkeriaren biktimei arreta integrala emateko taldeen bidez.

Aipatutako zentroak pixkanaka ezartzeko bide horretan, 2010ean ezaugarri horiek izanen dituen talde bat jarriko da abian Lizarrako aldean. Tuteran eta Iruñean, berriz, gizarte zerbitzuen zentroak ezartzerakoan aztertuko da, udalekin batera, udal-zerentroetako talde profesionaletatik zein pertsona joan daitezkeen gizarte zerbitzuen zentroetara, batzuek eta besteak ez daitezen lan beretan aritu.

Iruñean, 2009ko azaroaren 10ean

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

## **Galdera, Santo Domingoko zahar-etxeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Ioseba Eceolaza Latorre jaunak galdera egin du Santo Domingoko zahar-etxeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko urriaren 16ko 103. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Ioseba Eceolaza Latorre jaunak Santo Domingo zahar-etxeke egoiliarrek beste zahar-etxe batzuetara eraman behar izateko arrazoiei buruzko galdera egin du (PES 281/09). Hona hemen Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

Eceolaza jaunak berak eginiko galdera bati emaniko erantzunean adierazi bezala, Lizarrako

Santo Domingo zahar-etxearen gaur egungo egoera azterbidean da eta erabakitze dago zein lekutan kokatuko den behin betikoz eta kontua zehazki nola konponduko den.

Aurrena, xehetasun-azterlan bat egin zen, ikusteko ea zer aukera zegoen egungo zahar-etxea berritzeko, zahar-etxea handituta eta modernizatzeko behar bezala egokituta.

Hala ere, proiektu honek zailtasun teknikoak eta arkitektonikoak dituenez, Nafarroako Mendekotasun Agentzia beste norabide batzuetan hasi da lanean, eta aztertu duen aukeretako bat izan da zahar-etxe hau San Jerónimo zahar-etxera eramatea; ikusi beharra dago, hala ere, aukera hori bideragarria ote den.

Gaur egun halaxe dago, beraz, galderak hizpide duen gaia, eta, oraindik, ez da behin betiko erabakirik hartu horri buruz.

Iruñean, 2009ko azaroaren 16an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

## **Galdera, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak Adingabearen Nafarroako Kontseilua sortze aldera egin dituen jarduketeki buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Javier Monzón Romé jaunak galdera egin du Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak Adingabearen Nafarroako Kontseilua sortze aldera egin dituen jarduketeki buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko urriaren 30eko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko azaroaren 26an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko foru parlamentari José Javier Monzón Romé jaunak galdera egin du Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak Adingabearen Nafarroako Kontseilua sortze aldera egin dituen jarduketeki buruz (PES 291/09). Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietarako kontseilariaren erantzuna:

Hasteko, eta ezer baino lehen, iruditzen zaigu galdera Haurren eta Nerabeen Arretarako Kontseiluari buruz izango dela, zeinaren sorrera Haurren-

tzako eta Nerabeentzako Sustapenari, Laguntzari eta Babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legeko seigarren xedapen gehigarrian baitago aurreikusia.

Horri buruz, adierazi behar dugu ezen, azaroaren 20ko 417/2008 Foru Aginduaren bidez, prestabidean jarri zela Haurren eta Nerabeen Arretarako Kontseilua arautuko zuen foru dekretua, hau da, adingabeen babesaren arloan Foru Komunitateko Administrazioak kontsulta egin eta aholku hartzeko organo kolegiatua arautuko zuen dekretua.

Hasieran prestatutako proiektua jendaurrean jarri zen urtarrilaren 12ko 1/2009 Foru Aginduaren bidez; agindu hori 2009ko martxoaren 4an argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean, 27. alean hain zuzen.

Espedientea, geroztik, beharrezko edukiarekin eta izapideekin tramitatu da, hots, Nafarroako Gobernuak 2006ko azaroaren 26ko Akordioan erregelamendu mailako xedapenak prestatzeko ezarri zituen jarraibideen arabera.

Uneotan, aipatutako proiektu horri buruzko espediente osoa Lehendakartzako Zuzendaritza Nagusiaren esku dago, Legegintza eta Koordinazio Zerbitzuaren esku hain zuzen; horren ondotik gelditzen den urrats bakarra da Nafarroako Gobernuari igortzea, aintzat har dezan, eta Nafarroako Kontseiluari igortzea.

Iruñean, 2009ko azaroaren 16an

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

## **Galdera, “Mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeko eta laguntzeko sistema” izeneko kontusailari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Ioseba Ezeolaza Latorre jaunak galdera egin du “Mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia sustatzeko eta laguntzeko sistema” izeneko kontusailari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko urriaren 30eko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko abenduaren 23an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

### **ERANTZUNA**

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Ioseba Ezeolaza Latorre jaunak galdera egin du “Autonomiarako eta mendekotasunari arreta egiteko sistema” izeneko kontusailari buruz (PES 287-09). Hona Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren erantzuna:

“Autonomiarako eta mendekotasunari arreta egiteko sistema” izeneko 920006 91830 4000 000000 kontusaila, 2009ko ekitaldiko dirusarreraren aurrekontukoa, honako zenbatekoetan handitu izan da gaur arte:

<b>Ekitaldia</b>	<b>Kontabilizatzearen data</b>	<b>Zenbatekoa</b>	<b>Kontzeptua</b>
2009	2009/04/30	2.126.033,54	Mendekotasuna. 2008ko behin betiko likidazioa.
2009	2009/04/30	7.524.447,06	Mendekotasuna. 2009ko 1. hiruhilekoko likidazioa.
2009	2009/06/26	4.379.995,82	Mendekotasuna. 2009ko 2. hiruhilekoko likidazioa.
2009	2009/09/28	3.930.508,49	Mendekotasuna. 2009ko 3. hiruhilekoko likidazioa.
<b>Guztira</b>		<b>17.960.984,91</b>	

Iruñean, 2010eko abenduaren 10ean

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilaria: María Isabel García Malo

